

BALIO-PROPOSAMENA

Aurkezten dugun proposamena aiton-amonentzako iraupen laburreko zerbitzuak dira. Honen helburua, aiton-amonen ongizatea izango da hain zuzen. Gure ustez, badira aiton-amonak behar dituzten zerbitzu asko, bakarrik egin ezin dituztenak, eta funtsezkoak direnak, eta horiek egiten lagundu nahi diegu eskaini ahal dizkiegun baliabideekin. Baliabide hauen barruan, erosketa egiteko, etxea garbitzeko, edota konpainia egiteko pertsonak aurkitzen ditugu.

Honekin batera, gure xedea laguntza eskaintzea denez ahalik eta adin nagusiko pertsona gehienei, zerbitzua eskuratzeko prezioa optimoa izango da, hau da, edozein egoera ekonomikotan aurkitzen diren guztientzako. Hauen artean, badira alargun batzuk inongo laguntzarik ez dutenak, eta hauei tarifa bereziak emango dizkiegu. Honekin lortu nahi duguna da, laguntza ahalik eta bereziena eta eskuragarriena eskaintzea edozein egoera ekonomikoetan aurkitzen diren pertsonari. Izan ere, pandemian konturatu ginen pertsona askok ezin zutela etxetik atera eta ez zutela inor erosketak egiteko adibidez. Kasu hauetan bizilagunek hartu behar izan zuten horren erantzukizuna. Uste dugu, horrelako zerbitzu batek pertsona hauen bizitza erraztuko zukeela garai horietan, eta zerbitzu horiek eskaintzeko enpresak ez daudela ikusirik, bat asmatu nahi izatea eragiten digu.

Jarduera aurrera eramateko, bozgorailu bat eskuratuko zaie eta honen bitartez aitona amonak behar duten zerbitzua zehazki aitortuko dute, eta gu berehala eskaintzen saiatuko gara. Bozgorailu honen eskuragarritasuna hogeita lau ordukoa izango da, beraz edozein eguneko uneetan eskatu dezakete behar duten hori. Zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzen ditugunez, eta haien beharretara moldatzen garenez, hau dena posible egiteko gure baitan ditugun baliabide eta eskaini ditzakegun zerbitzuak kudeatzen ditugu.